

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Kirol, kultura eta gizarte-ekintza arloetako 2016ko dirulaguntzak emateko oinarrietan akatsak zuzentzea eta haiek aldatzea (ALHAOn 2016ko urriaren 17an argitaratuta, 115. zenbakian)

Erriberabeitiko Udalak, 2016ko irailaren 14an egindako aparteko bilkuran, kirol, kultura eta gizarte-ekintza arloetako 2016ko dirulaguntzen oinarri arauen ondoko artikulua hauek aldatzea onartu zuen:

2. artikulua. Onuradunen betebeharrak:

1. puntua aldatzen da, ondoren azaltzen den bezala idatzita utziz:

1. Udalerriaren esparruan 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 30era arte gauzatu diren sustapen soziokulturaleko jarduerak eta kirola sustatzeko jarduerak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Kreditua 17.000 eurotara handitzen da, 341.481.011 aplikazioa barne izanik.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak:

Honela zuzentzen da:

- 5. paragrafoa kentzen da, 12. paragrafoarekin bikoiztuta dago eta.
- 10. paragrafoa ondoren azaltzen den moduan idatzita geratzen da: “Dirulaguntzen ordenantza orokorrak 19.2.b) artikuluan ezartzen dituen betekizunak bete beharko dituzte”
- 12. paragrafoan, “I. eranskina” dioen lekuan, “(II. eta III. eranskinak)” jarri behar da.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Aurkezteko epea 2016ko azaroaren 30era arte luzatzen da.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Artikuluaren hasieran honako hau erantsiko da:

“Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da”

9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Lehenengo paragrafoa ezabatu eta honako hau sartzen da:

“Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da”

9.1. Dirulaguntzak aldi batean ordainduko dira, baldin gastuak justifikatzeari buruzko baldintza guztiak betetzen badira, edo, bestela, dirulaguntzaren ehuneko 60 arte aurreratuko da, eta, kasu horretan, dirulaguntzaren gainerako zatia kobratzeko, gastua justifikatu beharko da, behin deialdiaren ebazpena eman eta interesatuei jakinarazirik. Nolanahi ere, 9.1.c) oinarrian aipatzen den kasuan (eskaerak aurkezteko epearen barruan obraren aurrekontu adostua aurkeztea fakturaren ordeztu), ez da ordainketarik egingo, harik eta, behin jarduera amaitutakoan, entitate interesatuak egindako gastu osoaren faktura aurkeztu arte. Era berean, ez da dirulaguntzarik ordainduko, baldin eta erakundea zordun bada dirua itzuli beharra duela dioen ebazpenagatik.

9.2. Erriberabeitiko Udalak erakunde eskatzaileei jakinaraziko die eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien; 15 egun naturaleko epean jakinaraziko die, deialdiari buruzko ebazpena ematen denetik aurrera kontatuta. Behin dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan, onuradunak, 10 egun naturaleko epean, ez badio berariaz uko egiten, onartutzat joko da.

9.3. Onuradunak jarduera diruz lagunduaren aurrekontuaren ehuneko ehun justifikatu beharko du, eta ez Erriberabeitiko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta zehaztu beharko du zein gastu egozten zaizkion Udalari. Horretarako, 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Gauzatutako gastuen zerrenda, zenbaki hurrenkerazkoa, bertan zehaztuz hartzekoduna, zenbatekoa, faktura eman zen data eta ordainketa, deialdi honetako II. eranskinaren arabera.

b) Eranskin horrekin batera, jatorrizko fakturak aurkeztuko dira, edo haien kopia konpultsatuak.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea, III. eranskinaren arabera.

Onuradunek ez badituzte betetzen oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta xedapenak, gerta liteke dirulaguntza ezeztatzea, eta, hala gertatzen bada, dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantzan araututakoa izango da.

Rivabellosa, 2016ko azaroaren 18a

Alkatea

PEIO RUIZ GARCÍA